

ARTURO RODRIGUEZ BORNAETXEA

Turismoa paradisura

Testu hau behin ikusitako film baten oroipenetan oinarrituta osatu da: Jose Val del Omar-en *Tira tu reloj al agua*, *Variaciones sobre una cinegrafía intuida*, Eugeni Bonet-ek zuzendu, ez-gidoia egin eta muntatua.

Jose Val del Omarrek (Granada, 1904 – Madril, 1982) artearen, poesiaren eta sormenezko esperientzia horiek nahasi eta bat egiten duten praktiken alderdi desberdinetan deskargatu zuen bere intuizio gaur egungoa.

Hala, haren lana askotariko egiten da gaiaren aldetik, zorrotza teknika aldetik eta baretasunean konplexu. Ikus-entzunezko zurrunbiloaren une bizia lortzeko ideala gogoan, haren lanak, esplorazioari eta ikertzeari eskainia, ikuspen, iratxo zein asmakizun ondare aberats bat utzi digu.

Tira tu reloj al agua filmaren bidez, Eugeni Bonetek (Bartzelona, 1954) hurbilketa bat proposatzen digu “zurrunbilo” horretara (zeina Val del Omarren sormenari buruzko teoriarik agintzen duen sinboloa baita), sailkatzen gaitza eta aztertzen are gaitzagoa den zentzumenen alorreko zurrunbilo baten bidez. Erpinetik oso gertu, ia-ia zikloiaren erdian, zenbait une aurkitzen ditugu, asmo «zurrunbilotsu» horrek beteta film honi esker, irudien barrutik egina baita, eta «kanporantz» formalizatua, irudiek (berezko sorgintasun batez) kokapen bat bilatuko balute bezala bi egile horien (zuzendari katalana, zinemagile andaluzar) pentsamendu elkarlotuan.

Dena da itzulketa, dena da hasiera, dena bilbadura, dena gainjarri gardena, dena dilindan (offeko ahotsa)

Dena ezer ez | erpin zurrunbilo | oldar-zurrunbilo | erlojurik gabeko denbora | espaziorik gabeko denbora | oinik zein lurrik gabea
(filmean txertatutako testuak)

Baina beste ezer baino lehen, irakurleari eskatu behar diot barkabera izan dadila bere sineskortasuna noizbait zaurtuta suertatzen bada, eta saio mota horren izaera gogoratzea; izan ere, irudien arteaz mintzatzea ez beste helbururik ez baitute, haiek adierazezinak diren arren.

Ezin espero daiteke film konbentzionaletan agintzen duten irakurketa edo azterketa lege berek hemen agintzea, haietan egiturak ezagunak eta aurrez ikus daitezkeenak (generikoak diren aldetik) baitira.

Irakurleak kontuan hartu behar du jauregi sorgindu baten aretoetan dagoela, eta dena zoragarri eta fantastikoa dela. Edo, gutxienez, bestelakoa.

Tira tu reloj al agua filmen gaineko filma da, muntatze lan fina, elkarri sotil-sotil kateatutako harri bitxiez egindako lana.

Zilarrerria eta letoizko trasteak etxeen fatxadetan. Islak kobrean, distirak ur gainean, asmatutako dirdirak, dirdai eta irradatzeak, esperimendatze teknikoaren ondorioz lortutakoak, ez alferrik esperimendatze horrek baitirudi protagonista, harik eta jabetzen zaren arte etengabeko mugimenduan ari den sentiberatasun bat transmititzeko bitartekoa besterik ez dela; etenik ez du sentiberatasun horrek, urak bezala, etengabe jariatzen Alcazaba-ko patioetan, beti atzealdean...

“Film hibridoa da, teknika digitalez egina delako, eta beste artista baten lan zapuztu baten interpretazioa delako: hori izan liteke bi urtez lanpetuta eduki nauen artefaktuaren definizio posible bat”, dio Bonetek berak.

Filmen film hau esperimenduz betetako esperimendua da. Esperimendu txikiak, beste saio konplexu

batzuekin elkarrizketa irekian ari direnean zabaldu egiten direnak. Saio horiek berretsi egiten dute norbaitek ideia bat era oso zehatzean adierazten duenean agertzen dela konplexutasuna. Horregatik da konplexu sinplea dena, horregatik komunikatzen du konplexutasuna (benetako) arteak, jakinarazten digu.

Horregatik guztiagatik eta guztiz ezin esplika dezakedan beste arrazoiren batengatik, film hau gozatzea esperientzia konplexua da, eta horren aurrean nor bere argudioak aurkitu behar ditu, ez baitago informazio induziturik, ez bide espresuki seinalaturik, ez aztarna sekreturik ikusle gisa (alegia, ikuskizun irenslere pasibo) eratuko gaituenik.

Konplexutasunetik abiatuta lan egitea da eskura dauden datuak antolatzea, xedea izaki munduaren ikuspegi ahalik eta dimentsioanitzena izatea. Eta ikuspegi dimentsioanitzekoa izatea da gizabanakoak testuinguru tokiko eta globalarekin duen harremanaz eta elkarreraginaz jabetzea. Irudiok eskaintzen diguten konplexutasunak pentsamenduak eta ekintzak tokikoan eta globalean bat egiten duten alor batean kokatzen gaitu. Alde batetik, pentsamendu dialogiko bat, lanaz hitz egitera bultzatzen duena, pentsamendu birsortzaile ebolutiboa, hologramatikoa eta poliskopikoa. Bestetik, nolabaiteko ekintza bat, homogenea denetik bereizten dena eta heterogeneoa denaren artikulazioan adierazten dena. Alde batetik filmatzeko ekintza muntaiaren pentsatua (Val del Omar), bestetik muntatzeko ekintza, burutik kendu ezinik irudi horiek nola izan ziren filmatuak... (Bonet).

Atzoko irudien artikulazioa, gaur editatuak biharkoak balira bezala, haien txegoste atemporerako; izan ere, ez baitago bere iraupenean agintzen duen denborarik, ez da amaitzerik ez luzapenik izango dibergentzia filmekoaren alorrean egindako ariketa honetan.

Bizitasun argiztatua behar du izan zinemak, eta iritzi horrek erabateko indarra ematen die nire teknika lirikoei eta pertzepzio subliminaleko alorrekoei –akustiko, optiko zein argizkoei-, eta araudi zinematografikoari hain atxikita dagoen errutina geldoaren argi histuak deuseztatzen saiatu.

(Val del Omarren offeko ahotsa)

Tira tu reloj al agua sinfonia ere bada. Egitura ordena intuitu batean disolbatzen denean, agian sinfonia deitzea da onena. Soinu banda iritsi da irudi saldotik hain hurbil egotera, non ezinezkoa baita dagoeneko bata bestetik bereiztea. Berritri ere, proiektua arduratzen da gauzatuko dutenak bilatzeaz denboran barrena. Boneten bidez, Val del Omarrek bere irudiei soinuak lotzen dizkieten musikari taldea aurkitzen du FMOL hirukotean, nahiz eta batzuetan isiltasuna bakarrik den haien karrari eusteko gai.

Soinu-materiala prestatzean, sanpleatu egiten ditugu Fallatik hasi eta inprobisatzaile japoniarrenganaino; diskoak manipulatu ditugu, Miles Davisengandik Enrique Morenterengaino; material akusmatikoa grabatzen dugu, ura, ahotsak, etab.; eta Val del Omarren artxibategiko materiala ere badaukagu (FMOL hirukotea).

Ijito baten oihu hautsia indarrez proiektatzen da arabeskoen gainean. Ura aditu daiteke pasarte abstraktuetan: ispilutzeen turrusta; jatorrizko soinua errespetuz integratzen da beharrezkoen den lekuetan. Tratamendu desberdinak itxuraz bat ez datozen pasarteetan, muntaiari eta audioari esker sekuentziak segidan elkarri lotu eta harmonizatu egiten dituztenak.

Tira tu reloj al agua zentzumenetarako dago eginda, ikus-entzunezkoari eskainitako konposaketa da, eta «bizitzaren denbora luzearen ibilbidea» ere bada, gauza txiki handi askoren ibilbidea... Aroak, bizipenak, oroipenak zeharkatzen ditu, teknikaren alboan bidaiatzen du eta hasieratik amaieraraino parte hartzen du bere abenturan, joan den mendeko zinemaren eta egungo teknologiararen arteko lotura harmonikorako proiektua den aldetik.

“Uste dut Jose Val del Omar, denbora laburrean ezagutu nuen bera, ez zela zinemagile arraro edo abangoardista, baizik eta amateurra, ez gehiago ez gutxiago. Begirunerik handienez ari naiz erabiltzen amateur hitza, Maya Deren, Stan Brakhage edo Jean Cocteau bezalakoek egin zuten bezala zinema maitalearen, edo, Val del Omarrek berak iradoki zuen bezala, zineman sinesten duenaren adieran...” (Eugeni Bonet)

Lau sekzio edo mugimendutan dago egituratuta filma, sarrerako zatiaz gain. Lau zati horietan, soinu, funditu, trantsizio eta gainerako lotura-esperimentuetan disolbatuak, disolbatu egiten dira pantailako testuak, txertatutako testuak, offeko ahotsa, baita Val del Omarren beraren ahotsa ere, bulkada gurutzatze bat ahalbidetzen dutenak, eta hartara irudiei garrantzizko erliebea eman.

Ura etengabea. Alhambra beti erdigunean. Atzeko aldean, beti Granada.

Arabeskoa egitura zinematografikotzat hartua. Ojiba gotikoetako apaindurek, landaretzak, zerrendek eta landaretzazko espiralek osatzen dute filma; eta proiektatu, friso, idulki eta zerrenda apaingarriak diren pantailetan proiektatzen dira.

Sintaxia, urazpikoa; haria, sentipenez egina; ondorioak, bete-beteak.

Ea, zatozte hona, mesedez. Bestea [beste patioa], lehoiena, politagoa ikusiko duzue, zein gauza ederra, ezta?, baina gauza bat esango dizuet: orain gauden patioa, bai?, benetako patio arabiar-andaluza da.

Eta orain, jaunok, argazkiak egin ditzakezue..
(filmeko gidari turistikoaren ahotsa)

Izadi biziak izadi hilen aurka, telebista, Kung Fu telesaila, gizon-emakume aurkezleak zuri-beltzean, emanaldien amaiera, Franco.

Geometria modularrak ikusteko tresnetan. Folklore trokelatua, bikaintasunezko mendeak isiltasunean erortzen diren gangak.

«Turismo» hitza daramaten autobusak, pertsona-zinema kameran desfilea, «turistak irristatzen» beren kameran kliskatzeek markatutako erritmoan, turista azpiratuak, ezinezkoa zaielako bisitatzen ari diren lekuko bakea bereganatzea.

Tira tu reloj al agua honek bi exekutatzailerik eta errudun mordo bat dauka, eta denak antolatzen dira egiletzaren inguruko edozein eztabaida lurreratzeke.

Filmaren azken partea, Bonetek Val del Omarri gorazarre egiten diona, bizia da, larria, ezin da itzuri koloretako argizko maremagnum honen gailurra izango den koda sutu baten premiatik.

Nor naizen jakin nahi nuke: esna edo lokartuta, irekia edo itxia, gaiztoa edo ona inguratu ninduten eta oraindik ere inguratzen nauten izakiei dagokienez.

Deusezaren profesionala naiz. Giza xomorro koitadu bat, komunikatzeko daukan egitekoan bere gar itsu, nahasi, kaotikoaren kutsadura erabiltzen duena.
Hilzorian egon nintzen, eta bizi nahi izatera birjaio nintzen: argira, kolorera, pozera, lasaitasunera, harmoniara, Batasunera.

Bai, Batasunak izugarri erakarri ninduen. Intuitu egin nuen urratu guztietan, eta sekretu horrek hats eman zidan informazioak iritsi zitzaizkidan modu bakarrean komunikatzeko: zirraren bidez. Eguneroko biziaren ikuskizunaren bidez.

Hil nahi ez duen tximino kaxkar bat naiz.

Ero egarritu bat, Jainkoaren uraren bila haren izaki guztiengan.
Espazioko higiezinak sekula interesatu izan ez zaizkion ero urbano bat.
Alditsu bat, Denbora Handiaren amildegi garden mutuan behera erortzen.

Jainko garden bat intuitu nuen, denbora eternal isila. Materia zein itxurarik gabea.
Kolorerik, zaporerik, mugarik gabea.

Hain hurbil izanagatik, ukitu ezina. Hain absolutua izanagatik, ikusezina.
Nire Jainkoa zero sendoa da, Unibertsoa dantzan jartzen duten dardara guztien kokaleku
mutua.
Nire Jainkoa Denbora da.
(offeko ahotsa)

Diskurtso saihesten zaila film honetaz hitz egin nahi denean.
Hitz gainezkako horiek, «goranzko» irudi batzuei lagun egiten dietenak, gainezkaren gainezkaz
iristen dute Val del Omarrek iruditutako zurrunbilora daraman espiral berbera.
Azken koda horretan nahasten dira offean aditzen diren testuak eta eskuz idatzitako izenburuak.
Filmaren amaiera pixkana-pixkana iristen da, irudi indartsu batzuen sendotasunez, orratz puntada
tenkatu gogor batean oinarrituta.
Boneten hitzetan: “Halako amaiera “eskegi” bat da, luzatuz doana, atzeratuz, denbora emateko
bezala irudikatutako hiltze-ernamuintze edo birjaiotze sinboliko horri...”.

ARTURO RODRIGUEZ BORNAETXEA artista da. Gasteizen bizi da.

Testu honetan tartekatu egin da filmaren (www.valdelomar.com-en dago eskura) inguruko
informazioa, txertatutako testuak eta offeko ahotsen testuak barne. Testu hau behin ikusitako
filmaren oroipenetan oinarrituta osatu da (Bilbo, Arte Eder Museoa, 2004ko abenduaren 22an),
EHUko Arte Ederretako Fakultateak antolatutako “ikus-entzunezkoen erakusketa”-ren ekintzen
baruan.